

**2015eko MARTXOAREN 10eko UDALBATZARRA**  
**PLENO DE 10 DE MARZO DE 2015**

**BERTARATUAK / ASISTEN:**

**ALKATEA / ALCALDESA: M<sup>a</sup> SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI**

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:**

**FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLETXEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

**JON ABRIL OLAETXEA (Iana/ trabajo), UGAITZ ADO PRIETO (eririk/enfermo).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**  
**Eguna: 2015-03-10**  
**Ordua: 19:30**  
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

**Lugar: Casa Consistorial de BERA**  
**Día: 10-03-2015**  
**Hora: 19:30**  
**Tipo sesión: ordinaria, 1<sup>a</sup> convocatoria.**

**TRATATZEKO GAIK:**

**ASUNTOS A TRATAR:**

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-**

**2015.eko otsailaren 10ean egindako bilaren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

**Vista el acta de la sesión celebrada el día 10 de febrero de 2015, por unanimidad SE APRUEBA.**

**2.- BIDE PUBLIKOKO LURPEA, HEGALKINA ETA LURZORUAREN APROBETXAMENDU BEREZIENGATIKO TASA ALDATZEA. BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA: MORTERO-SILOA, OBRA-TXABOLAK, HESIAK, ALDAMIOAK, GARABIAK, KARGA-JASOGAILUAK**

**2.- MODIFICACIÓN DE LA TASA POR APROVECHAMIENTOS ESPECIALES DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE LA VÍA PÚBLICA. OCUPACIÓN DE VÍA PÚBLICA: SILO DE MORTERO, CASSETAS DE OBRA, VALLAS ANDAMIOS, MONTACARGAS, GRUAS Y SIMILARES.**

## ETA ANTZEKOAK.

*Alkateak azaldu du gaia eta idazkariak prozedura. Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

*La Alcaldesa explica el tema y la Secretaria el procedimiento. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Bide publikoko lurpea, hegalkina eta lurzoruaren aprobetxamendu berezientzatiko tasa aldatzeko espedienteak: mortero-siloa, obra-txabolak, hesiak, aldamiok, garabiak, karga-jasogailuak eta antzekoekin bide publikoa okupatzekoa.**

Visto expediente de modificación de la tasa por aprovechamientos especiales del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública: ocupación de vía pública -silo de mortero, casetas de obra, vallas andamios, montacargas, grúas y similares-.

**Kontuan hartuz, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikulua xedatzen dutena.**

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y en el artículo 13 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales.

### ERABAKI DUTE:

### SE ACUERDA:

**1) Bide publikoko lurpea, hegalkina eta lurzoruaren aprobetxamendu berezientzatiko tasa, mortero-siloa, obra-txabolak, hesiak, aldamiok, garabiak, karga-jasogailuak eta antzekoekin bide publikoa okupatzekoa, hasiera batez onestea, espedienteak agertzen den moduan.**

1) Aprobar inicialmente la modificación de tasa por aprovechamientos especiales del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública: ocupación de vía pública -silo de mortero, casetas de obra, vallas andamios, montacargas, grúas y similares-, según consta en el expediente.

**2) Aldaketa hau jendaurrean paratzea 30 egunetz, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedienteak aztertzeak aukera izan dezaten.**

2) Exponer al público dicha modificación, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos, vecinas, interesados e interesadas legítimas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos y observaciones.

**3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada lehen aipatutako epean, hasierako onespén hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**4) Behin betiko onspénaren ondoren, Nafarroako Gobernuaren Ordenantza Fis-**

4) Una vez realizada la aprobación definitiva, remitir esta modificación al Registro de

kalaren Erregistrora aldaketa hau bidaltzea.

Ordenanzas Fiscales del Gobierno de Navarra.

**3.- GERO LUR TRUKEA EGITEKO, BIDE PUBLIKOAREN TARTEA (11. POLIGONOA, 53. eta 252. LUR-ZATIAK) DESAFEKTATZEKO ESPEDIENTEA ALDATZEKO, HASIERA BATEZ ONESTEA.**

3.- MODIFICACIÓN EXPEDIENTE DE DESAFECTACIÓN TRAMO DE CAMINO PÚBLICO (POLÍGONO 11, PARCELAS 53 y 252) PARA POSTERIOR PERMUTA DE TERRENO, APROBACIÓN INICIAL.

*Idazkariak espedienteaz azaldu eta, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:*

*La Secretaria explica el expediente, tras lo cual, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:*

-----  
 ----ren izenean eskatua, Egurri baserriaren parean zihon bidearen trazadura aldatzea onartu zuen Udalak.

A solicitud de -----  
 ----- el Ayuntamiento aceptó la modificación del trazado del camino que discurría al frente del caserío Egurri.

**Aldaketa horrekin bide publikoaren trazadura hobetu, bere erabilera erraztu eta ez zion inolako kalterik egiten.**

Con esa modificación se mejoraba el trazado del camino público facilitando su uso y sin perjuicio del mismo.

**Horrexegatik, interesatuarekin adostu zuen bezala, bere lurtean okupatutako 170,99 metro karratuen ordez erabili gabe geldituko ziren bide publikoko 170,99 metro karratuak trukatuak zirela.**

Es por ello que, de acuerdo con lo que se convino con la interesada, los 170,99 metros cuadrados ocupados en terrenos de su propiedad con el nuevo trazado serían objeto de permuta con 170,99 metros cuadrados del camino público que quedaban sin utilidad pública

**Hori dela eta, Udalak, beharrezkoa den espedienteaz izapidetu ondoren, 2013ko uztailaren 23an eginiko Osoko bilkuran bide publikoko 170,99 metro karratuak desafektatzea behin betiko onetsi zuen.**

Para llevarlo a cabo, el Pleno del Ayuntamiento, tras la tramitación del oportuno expediente, en sesión realizada el 23 de julio de 2013, aprobó definitivamente la desafectación de 170,99 metros cuadrados del camino público.

**Hala ere, onartutako desafektazioa katas-trora eramateko, lurtean eta bide publikoan bertan, teknikoak egin dituen neurketak direla eta, 170,99 metro karratu okupatu beharrean 124,21 metro karratu okupatzen direla konprobatu du, horretarako eginiko planoetan agertzen den mo-**

Sin embargo, al llevar a catastro la desafectación aprobada y por las mediciones realizadas en el terreno y en el camino público, el técnico de catastro ha comprobado que los metros ocupados no son 170,99 sino 124,21, según consta en los planos realizados al efecto.

duan.

**Hori denarengatik, 2013ko uztailaren 23an onartutako behin betiko desafektazioa aldatu behar da eta 124,21 metro karratutako desafektazioa izapidetu.**

**Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 103. artikuluari eta Toki Entitateen Ogasunei buruzko Erregelamenduaren 12.1 artikuluari jarraikiz.**

**Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:**

**1) Egurri baserriko parean zihoan bide publikoaren trazadura zaharra, 124,21 metro karratutakoa, 11. poligonoko 53. lur-zatia eta 252. lur-zatien artean zihoana, desafektatzeko espedientearen aldaketa hastea, espedientearen dauden planoak jarraikiz, 2015eko otsailaren 20koak.**

**2) Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Irargarki Taulan aurrez argitaratuta, espedientearen jendaurrean hilabeteko epean jartzea.**

**3) Erabaki hau interesatuei eta ukituei, baldin badira, jakinaraztea.**

**4.- BERAKO UDAL PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA XEHAKATUA, 7. SEKTOREKO UEF-KOA, BEHIN BETIKO ONESTEA.**

*Idazkariak espedientearen azaldu ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, Udal Plan Orokorreko 7. Sektoriko UEF unitatearen bigarren aldaketa xehakatuaren espedientearen.**

**Dokumentazioa: Proiektua Carlos Urrutia arkitektoaren egina, 2014ko abuztukoak.**

Por todo ello, se debe modificar la desafectación aprobada definitivamente el 23 de junio de 2013 y tramitar la desafectación correspondiente a 124,21 metros cuadrados.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 103 de la Ley Foral de Administración Local y el artículo 12.1 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra.

Con el quórum de mayoría absoluta, legalmente exigido, SE ACUERDA:

1) Iniciar el expediente para la modificación de la desafectación del tramo de camino público de 124,21 metros cuadrados, situado entre las parcelas 53 y 252 del polígono 11 que discurre frente al caserío Egurri, según planos que constan en el expediente de fecha 20 de febrero de 2015.

2) Exponer al público durante el plazo de 1 mes el expediente previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios.

3) Notificar este acuerdo a los interesados/as y a las personas afectadas, si las hubiere.

4.- APROBACIÓN DEFINITIVA 2ª MODIFICACIÓN PORMENORIZADA EN LA UEF DEL SECTOR 7 DEL PLAN MUNICIPAL GENERAL DE BERA.

*Tras explicar la Secretaria el expediente, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto expediente de segunda modificación pormenorizada en la unidad UEF del Sector 7 del Plan General Municipal.

Documentación: Proyecto redactado por el arquitecto Carlos Urrutia, de fecha agosto de 2014.

**2014ko urriaren 14an Udaltzako espediente hau hasiera batez onartu zuen.**

Con fecha 14 de octubre de 2014 el Pleno aprobó inicialmente este expediente.

**Jendaurreko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.**

En el plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

**Kontuan hartuz, hasiera bateko onepenari buruzko erabakian Udaltzako eskatutako dokumentazio osagarria 2014ko abenduaren 12an aurkeztu dutela.**

Teniendo en cuenta que la documentación complementaria solicitada en el acuerdo de aprobación inicial ha sido presentada el 12 de diciembre de 2014.

**Ikusirik, horri buruz Nasuvinsak 2015eko urtarrilaren 20an eginiko txostena.**

Visto el informe de Nasuvinsa de 20 de enero de 2015 al respecto.

**Ikusirik, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak aldaketa honi buruz 2015eko otsailaren 16an emandako aldeko txostena**

Visto el informe favorable de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico sobre esta modificación de 16 de febrero de 2015.

**Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak egindako txostenak, 2014ko abuztuaren 19 eta urriaren 8koa.**

Vistos informes de Secretaría emitidos de conformidad con el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local, de fechas 19 de agosto y 8 de octubre de 2014.

**Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.3, 74 eta 81.1) artikuluekin bat etorritik.**

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.3), 74 y 81.1) de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

**Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERA-BAKI DUTE:**

Con el quórum de mayoría absoluta, legalmente exigido, SE ACUERDA:

**1) Udaltzako Orokorren 7. Sektoriko UEF unitatean 2. aldaketa xehakatuaren espedientea behin betiko onestea.**

1) Aprobar definitivamente la 2ª modificación pormenorizada de la unidad UEF del Sector 7 del Plan General Municipal.

**2) Behin-betiko onepen hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

**3) Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.**

3) Notificar este acuerdo a los/las interesados/as.

**4) Erabaki hau eta onartutako Udaltzako Orokorren aldaketa honen ale bat Nafarroako Gobernuaren Sustapen Departamenduari bidaltzea.**

4) Trasladar este acuerdo y un ejemplar de la citada modificación aprobada al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra.

mentuari bidaltzea.

**5.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA XEHAKATUA, LUR EZ URBANIZAGARRIKO HIRIGINTZA ARAUTEGI OROKORRA ETA HIRIGINTZA ARUAUAK ALDATZEN DITUENA, HASIERA BATEZ ONESTEA.**

*Alkateak azaldu du Hirigintza Batzordean aldaketa hau landu ondoren, orain, hasiera batez eman behar zaiola.*

*Idazkariak prozedura aipatu du eta, horren ondotik, aho batez, legeak eskatutako gehien-go osoa izanik, honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatuaren espedientea, Lur ez urbanizagarriko hirigintza arautegi orokorra eta Hirigintza arauak aldatzen dituen, Udalak sustatua.**

**Dokumentazioa: Planaren Aldaketa Xehakatuaren proiektua, ----- arkitektoak egin, 2014ko irailaren 12an.**

**Ikusirik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74.2 artikuluari jarraikiz Nasuvinsak eginiko txostena, 2015eko otsailaren 26koa.**

**Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak 2015eko martxoaren 3an egindako txostena.**

**Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79. 3 eta 74 artikuluekin bat etorritz.**

**Legeak eskatutako gehien-go osoz, ERABAKI DUTE:**

**1) Lehen aipatu Udal Plan Orokorraren**

**5.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL: NORMAS URBANÍSTICAS Y NORMATIVA URBANÍSTICA GENERAL DEL SUELO NO URBANIZABLE.-**

*La Alcaldesa explica que tras el estudio y elaboración de esta modificación en la Comisión de Urbanismo, ahora, procede la aprobación inicial.*

*La Secretaria explica el procedimiento y, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto expediente de modificación pormenorizada de las Normas Urbanísticas y Normativa urbanística general del Suelo no urbanizable del Plan General Municipal, promovido por el Ayuntamiento.

Documentación: Proyecto de modificación pormenorizada del plan, redactado por el arquitecto -----, de fecha 12 de septiembre de 2014.

Visto informe de Nasuvinsa de fecha 26 de febrero de 2015, emitido de conformidad con el artículo 74.2 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Visto informe de Secretaría de 3 de marzo de 2015 emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.3) y 74 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Con el quórum de mayoría absoluta, legalmente exigido, SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la modificación pormenorizada de las Normas Urbanísticas y

**aldaketa xehakatur, Lur ez urbanizagarriko hirigintza arautegi orokorra eta Hirigintza arauak aldatzen dituen, Udalak sustatua, hasiera batez onestea.**

- 2) Aipatu aldageta hilabete bateko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarrietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.
- 3) Udal Plan Orokorraren aldageta honek eragindako zonaldeetan, obra baimenak ematea eten gelditu direla seinaleztatzea.

#### **6.- UDAL PLAN OROKORRAREN ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIO ORDENANTZAK ALDATZEA, HASIERA BATEZ ONESTEA.**

*Idazkariak prozedura azaldu eta, aho batez, onartu dute erabaki hau:*

**Ikusirik, Udal Plan Orokorraren Eraikuntza eta Urbanizazio Ordenantzak aldatzeko espedientea, Udalak sustatua.**

**Dokumentazioa: Planaren Aldaketa Xehakatuaren proiektua, ----- arkitektoak egin, 2014ko irailaren 12an.**

**Ikusirik, aldageta honi buruz Nasuvinsak 2015eko otsailaren 26an eginiko txostena eta Idazkaritzak 2015eko martxoaren 3an egindakoa.**

**Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 64. artikulua eta Toki Administrazioari buruz-**

Normativa urbanística general del Suelo no urbanizable del Plan General Municipal, promovida por el Ayuntamiento, antes referenciada.

- 2) Someter dicha modificación a exposición pública durante el plazo de 1 mes, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral de Navarra.
- 3) Señalar que el otorgamiento de licencias de obras queda suspendido en las áreas afectadas por esta modificación del Plan General Municipal.

#### **6.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN ORDENANZAS DE EDIFICACIÓN Y URBANIZACIÓN DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL.**

*La Secretaria explica el procedimiento y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto expediente de modificación de las Ordenanzas de Edificación y de Urbanización del Plan General Municipal, promovida por el Ayuntamiento.

Documentación: Proyecto de modificación pormenorizada del plan, redactado por el arquitecto -----, de fecha 12 de septiembre de 2014.

Visto informe de Nasuvinsa de fecha 26 de febrero de 2015 y el de Secretaría de 3 de marzo de 2015 emitidos al respecto.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 64 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo y 325 y 326 de la Ley

ko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluekin bat etorriz.

Foral 6/1990, de Administración Local de Navarra.

**ERABAKI DUTE:**

**SE ACUERDA:**

4) **Lehen aipatu Udal Plan Orokorren Eraikuntza eta Urbanizazio Ordenantzen aldaketa, Udalak sustatua, hasiera batez onestea.**

1) Aprobar inicialmente la modificación de las Ordenanzas de Edificación y de Urbanización del Plan General Municipal, promovida por el Ayuntamiento, antes referenciada.

2) **Aldaketa hau jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa eta oharrak jartzeko aukera izan dezaten.**

2) Exponer al público dicha modificación, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos, vecinas, interesados e interesadas legítimas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos y observaciones.

3) **Erreklamazio, kexa edo oharrak aurkezten ez da lehen aipatutako epean, hasierako onespén hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**

3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

**7.- EUSKARARAN ALDEKO MOZIOA.**

**7.- MOCIÓN A FAVOR DEL EUSKERA.**

*Alkateak mozioaren testua irakurri du eta, horren ondotik, bozketa eginda emaitza hau atera da:*

*La Alcaldesa lee el texto de la moción y, posteriormente, se realiza la votación con el siguiente resultado:*

*Aldeko boto: 8 (3 Aralar, 3Bildu eta 2 EAJ/PNV)*

*Votos a favor: 8 (3 Aralar, 3 Bildu y 2 EAJ/PNV).*

*Aurkarko boto: 0*

*Votos en contra: 0*

*Abstenzio: 1 (UPN).*

*Abstenciones: 1*

*Beraz, mozioa onartu dute honako testua izanik:*

*Por lo que se aprueba la moción, siendo el texto el siguiente:*

----- **Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzeak bete-betean harrapatu gaitu UEMA eta bertako udalak. Kontratazioetako hizkuntza irizpideak, diru-laguntzetarako hizkun-**

----- Las intervenciones que están llevando a cabo el Gobierno de Navarra y el delegado para asuntos municipales del Gobierno de España en la Comunidad Autónoma Vasca nos afectan plenamente tanto a UEMA como a nuestros propios ayuntamientos. Así, han pues-



**tza irizpideak, aktak euskaraz bidaltzea edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak susmopean jarri dituzte. Bi udalek UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko hartutako erabakiaren aurka ere jo du Espainiako Gobernuaren ordezkariak.**

**Horrela, udalen eguneroko jarduna eta udalok euskara sustatzeko egiten ari garen lana baldintzatzen dute. Administrazio publikoak hainbat zerbitzu erdara hutsean eskaintzen dituen bitartean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko presatuta gauden udalak dira susmopean jarri nahi izan dituztenak.**

**Egoera larria da. Teorian euskara ofiziala den eremuan ere, praktikan euskarak, erdara erabili ezean, ez duela balio ofizialik esaten digute errekerimendu eta helegiteen bitartez.**

**Egoera honen aurrean BERako Udalak adierazi nahi du:**

- **BERako Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.**
- **Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerri euskaldunak, euskararen arnaguneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnaguneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren**

to bajo sospecha temas como los criterios lingüísticos para las contrataciones de trabajadores o para la concesión de subvenciones, el envío de actas en euskera o los criterios lingüísticos acordados para la euskaldunización de los ayuntamientos. Además, el delegado del Gobierno de España ha impugnado el acuerdo adoptado por dos ayuntamientos para formar parte de UEMA, la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes.

De ese modo, condicionan el trabajo diario de los ayuntamientos y el trabajo que desde ellos estamos realizando para la promoción del euskera. Mientras que la administración pública ofrece algunos de sus servicios exclusivamente en castellano, ponen bajo sospecha a aquellos ayuntamientos que estamos preparados para respetar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

La situación es grave. Así, por medio de requerimientos y de recursos nos dicen que, incluso en la zona euskaldun, el euskera no tiene valor oficial, si no se utiliza también el castellano.

Ante esta situación, el Ayuntamiento de BERA quiere expresar lo siguiente:

- El Ayuntamiento de BERA quiere ratificar el esfuerzo que se está haciendo para la promoción del euskera. Quiere expresar su compromiso para desarrollar el camino del euskera con otros agentes sociales e instituciones.
- Nuestro pueblo es especial desde el punto de vista Lingüístico. Por ese motivo, los ayuntamientos euskaldunes debemos intentar poner en marcha políticas eficientes para reforzar los “pulmones” del euskera.

erdigunean kokatzen saiatuz.

- Salatu nahi dugu Nafarroako Gobernuaren esku-hartzea. Eta Nafarroako Gobernuari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak errespetatzeko.
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egin den Manifestazioarekin bat egin nahi du BERAko Udalak. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko.
- Queremos denunciar la intervención del Gobierno de Navarra. Y solicitamos al Gobierno de Navarra que respete a los ayuntamientos de los municipios euskaldunes que estamos trabajando en la promoción del euskera.
- El Ayuntamiento de BERA apoya la manifestación que el Consejo de los Organismos Sociales del Euskera convocó para el 28 de febrero (a las 17:30, partiendo de la Plaza de Gipuzkoa de San Sebastián), para denunciar los obstáculos que nos imponen a los euskaldunes y reivindicar el deseo de vivir en euskera.

#### 8.- MOZIOA, ESPAINIA NAZIO BATUE-TAKO SEGURTASUN-KONTSEILUAN, MENDEBALDEKO SAHARAKO AUZIARRI BIDEZKO ETA BEHIN BETIKO KONPONBIDEA BILATZEKO AUKERA.

*Isidora Aguirre zinegotziak mozioaren testua irakurri du eta, aho batez, onartu dute honako testua izanik:*

----- Etorkizuneko belaunaldiak gerraren zigorretik babesteko” sortua izanik eta bere helburu nagusien artean “bakea eta nazioarteko segurtasuna mantentzea” duen Nazio Batuen Erakundeak 70 urte beteko dituen urtean.

40 urte pasa dira Espainiak Mendebaldeko Sahara abandonatu zuela eta harrezkero deskolonizatzeko dagoen Lurralde Ez Autonomoa da, Marokoren okupaziopean gainera.

Deskolonizazio kontuetan NNBB-ei eta bere Estatu kideei dagokie erantzukizun nagusia

#### 8.- MOCIÓN: ESPAÑA EN EL CONSEJO DE SEGURIDAD DE LA ONU. OPORTUNIDAD PARA LA BÚSQUDA DE UNA SOLUCIÓN JUSTA Y DEFINITIVA AL CONFLICTO DEL SAHARA OCCIDENTAL.

*La concejal Isidora Aguirre lee el texto de la moción y, por unanimidad, se prueba con el siguiente texto:*

----- En el año en que la Organización de las Naciones Unidas cumple 70 años, organización internacional principal creada para «preservar a las generaciones venideras del flagelo de la guerra» y siendo uno de sus principales objetivos “mantener la paz y la seguridad internacionales”.

Transcurridos 40 años desde el abandono por parte de España del Sahara Occidental, convertido desde entonces en un **Territorio No Autónomo pendiente de descolonización**, sometido además a una ocupación por parte de Marruecos.

Correspondiendo a las Naciones Unidas y a sus Estados miembros la responsabilidad

eta, Nazio Batuen sortze-Gutunaren arabera, bidezko eta behin betiko konponbideen bilaketan erantzukizunik nagusia Segurtasun-Kontseiluak du.

Indarreko legeriaren babesean, mozio hau izenpetzen duten talde politikoek hurrengo **PROPOSAMENA** aurkezten dute, Erakundearen Osoko Bilkurak egokia baderitza eztabaida eta onar dezan:

1.- Espainiako Gobernuari: De iure potentzia administratzailea den heinean, Mendebaldeko Sahararako Idazkari Nagusiaren Lagunen Taldeko kide izanik eta 2015/2016 agintaldian zehar Segurtasun-Kontseiluko kide ez iraunkorra denez ere, **PREMIAZ** eskatzen diogu:

- 1975 ezkerro bukatugabe dagoen deskolonizazio prozesuari amaiera emateko bere erantzukizuna **BETETZEA**, Herri Sahararraren borondatearen adierazpen libre eta benetakoa ziurtatuko duen erreferenduma ospatuz.

- Deskolonizazio eta Lurralde Ez Autonomoen kontuetan Nazio Batuek finkatutako doktrina **BABESTE**A. Horretarako Nazio Batuen Batzar Orokorraren 2625 Erabakiak zera adierazten du: "Herri baten determinazio askerako eskubidea gauzatzeko bideak Estatu subirano eta independentea, Estatu independente batekin elkartzea edo integratzea, edo herri batek libreki onartutako bestelako izaera politiko bat izango dira". Hau da hain zuzen ere autodeterminazioaren edukia.

- Bakea eta giza eskubideen babeserako, **MINURSO**ri (Mendebaldeko Saharako Referendumerako Nazio Batuen Misioa), lurraldean dagoen Nazio Batuen presentzia

principal en materia de descolonización, según la Carta fundacional de las NNUU. El Consejo de Seguridad tiene la máxima responsabilidad en la búsqueda de una solución justa y definitiva.

Los grupos políticos que suscriben esta moción, al amparo de la legislación vigente, presentan la siguiente **PROPUESTA** al objeto de su debate y aprobación, si procede, por el Pleno de la Institución:

1.- Instamos al Gobierno Español en su calidad de **Potencia administradora de iure**, y miembro del grupo de amigos del Secretario General para el Sahara Occidental y además miembro no permanente del Consejo de Seguridad durante el mandato 2015/2016 a:

- **CUMPLIR** con su responsabilidad para poner fin al proceso de descolonización del Pueblo saharauí, inconcluso desde 1975, mediante la celebración de un referéndum que asegure la expresión libre y auténtica de la voluntad del Pueblo Saharaui.

- **DEFENDER** la doctrina consolidada de las Naciones Unidas en materia de descolonización y Territorios No Autónomos para los que rige la Resolución 2625 de la Asamblea General de las Naciones Unidas que insta: "*El establecimiento de un Estado soberano e independiente, la libre asociación o integración con un Estado independiente o la adquisición de cualquier otra condición política libremente decidida por un pueblo constituyen las formas del ejercicio del derecho de libre determinación de ese pueblo*", siendo ese el contenido de la autodeterminación.

- **VELAR**, en defensa de la paz y los derechos humanos, por la atribución a la MINURSO (*Misión de las Naciones Unidas para el Referéndum en el Sahara Occidental*), única

**bakarrari, konpetentziak esleitu diezazkio-  
ten ARDURATZEA, saharar populazioaren  
eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial  
eta kulturalak babestu eta sustatu ditzan .**

presencia de Naciones Unidas en el territorio,  
de competencias en la protección y promo-  
ción de los derechos civiles, políticos, econó-  
micos, sociales y culturales de la población  
saharai.

**2.- Akordio hau ondoko helbidetara bida-  
liko dugu:**

2.- Dirigimos el presente acuerdo a:

- a) **ERREGE-ETXE ESPAINIARRA**  
Zarzelako Jauregia. Pardo Errepidea s/n.  
28071 Madril
- b) **ESPAINIAKO GOBERNUAREN PRE-  
SIDENTZIA**  
Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n.  
28071 Madril
- c) **KANPO-ARAZOETAKO ESPAINIAKO  
MINISTERIO**  
Probintziako plaza, 1. 28012 Madril
- d) **ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRA  
NAZIO BATUETAN**  
245st 47th Street, 36th Floor. New York,  
NY 10017. EEBB-----

- a) **CASA REAL ESPAÑOLA**  
Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n.  
28071 Madrid
- b) **PRESIDENCIA DEL GOBIERNO DE  
ESPAÑA**  
La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n.  
28071 Madrid
- c) **MINISTERIO ESPAÑOL DE ASUNTOS  
EXTERIORES**  
Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid
- d) **MISIÓN PERMANENTE DE ESPAÑA  
ANTE NACIONES UNIDAS**  
245 East 47th Street, 36th Floor. New York,  
NY 10017-----

**9.- MOZIOA: LAB ETA ELA TALDEKO  
CONDESA.**

9.- MOCIÓN: ELA Y LAB DEL GRUPO  
CONDESA.

*Alkateak mozioaren puntuak irakurri ditu eta  
horren ondotik, bozketa eginda emaitza hau  
atera da:*

*La Alcaldesa lee los puntos de la moción y,  
posteriormente, se realiza la votación con el  
siguiente resultado:*

*Aldeko boto: 8 (3 Aralar, 3Bildu eta 2  
EAJ/PNV)*

*Votos a favor: 8 (3 Aralar, 3 Bildu y 2  
EAJ/PNV).*

*Aurkarko boto: 0*

*Votos en contra: 0*

*Abstentzio: 1 (UPN).*

*Abstenciones: 1*

*Beraz, mozioa onartu dute honako puntuak  
izanik:*

*Por lo que se aprueba la moción, siendo los  
puntos los siguientes:*

1. Jendartean ezagutaraz dadila langileenganako babesa eta Condesako langileen lanpostuen eta lan baldintzen babesgarri egiten den mozioa, enpresaren gardentasun ez salatuz.

2. Condesako enpresari hitzordua eskatuko zaio, erakunde horri jakinaraz diezaion egungo egoera zertan den eta hark bideratuko dituen neurrien berri eman ditzan.

3. Eusko Jaurlaritzari nahiz Nafarroako gobernuari eskatuko zaie ahalik eta gehien inplika daitezela Condesako lantokietako iraupena berma Darin, baita langileen enpleguan eta lan baldintzetan ere.

4. Honez gain, erakunde honek Condesari, honetan nahasiak dauden finantza erakundeei nahi Arcelor Mittaleri eskatzen die lehenetsi eta errespetatzea enpleguari eta langileen lan baldintzei tutsi behar zaiela, eta ez dezatela horren aurretik ezer jar.-----

**10.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

**10.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-**

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

**1) Bandoak: B4/2015.**

1) Bandos: B4/2015.

**2) Ebazpenak: 2015eko otsailaren 9ko 30. ebazpenetik 2015eko martxoaren 4ko 55.era arte.**

2) Resoluciones: De la resolución nº 30 de 9 de febrero de 2015 a la nº 55 de 4 de marzo de 2015.

**11.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

**11.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.**

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:00etan.**

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:00 horas.

**O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA**  
Mª Sol M. Taberna Iratzoki

**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**  
Pilar Chueca Intxusta